



LANDAOLA

SARIAK

VII. LANDAOLA SARI BANAKETA EKITALDIA
PRENTSA DOSSIERRA

AURKIBIDEA

Landaola Federazioa.....	3
VII. Landaola sariak.....	4
Saridunak	5
Erakunde Pribatuaren saria	
MAKATZA BASERRIA - AGURTZANE GABIRIA	
Erakunde Publikoaren saria	
BERGARAKO UDALA	
OXIRONDO AZOKAN ELIKA ENEA SORTZEA	
Emakumeak Landa Eremuan saria	
HITZETZ ELKARTEA	
Urteetako ibilbideari saria	
ELI ARRILLAGA	
Sarietara hautatuak	9
Dokumentazio eta weborriak	18

LANDAOLA FEDERAZIOA

Landaola, Gipuzkoako landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen elkarte da. Irabazi asmorik gabeko erakunde hau, Gipuzkoako sei Landa Garapen Elkartek osatzen dute: **Behemendik**, **Deba-Garaiak**, **Debemenek**, **Goimenek**, **Tolomendik** eta **Urkomek**.

Landa ingurunearen iraunkortasuna bermatu eta sustatu asmoz, azken hamarkadetan tokian tokiko Landa Garapen elkarteak gaur egungo behar eta baldintzetara egokitzen joan izan dira. Euskal Autonomia Erkidego mailan, lurraldeka, federazioetan antolatuta egiten da elkarlana eta Gipuzkoako lurraldean **Landaola Federazioaren** bidez, **Landagune** Mahaiak elkartzen ditu erakunde desberdinak. Aipatutako tokiko sei Landa Garapen Elkartekin batera, mahai horretan parte hartzen dute **Gipuzkoako Foru Aldundiko** eta **Eusko Jaurlaritzako** Landa Garapen ordezkariak.

Elkarrekin landa-ingurune bizi eta lehen sektore moderno baten alde lanean dihardute. Erronka handiko lana, ezbairik gabe. Landaolan badakite gaur ereindako haziak biharko fruituak ematen dituela.



LANDAOLA
GIPUZKOAKO FEDERAZIOA

VII. LANDAOLA SARIAK

Aurten ere, Gipuzkoako landa garapen proiektuei errekonozimendua egin asmoz, Landaola Federazioak **VII. Landaola Sariak** antolatu ditu. Hauek izan dira ekimen sarituak:

- Erakunde Pribatuaren saria
MAKATZA BASERRIA – AGURTZANE GABIRIA

- Erakunde Publikoaren saria
**BERGARAKO UDALA
OXIRONDO AZOKAN ELIKA ENEA SORTZEA**

- Emakumeak Landa Eremuan saria
HITZEZ ELKARTEA

- Urteetako ibilbideari saria
ELI ARRILLAGA

Ondorengo orrialdeetan jaso da izendatutako proiektuen inguruko informazio zabalagoa.

ERAKUNDE PRIBATUAREN SARIA

MAKATZA BASERRIA

Agurtzane Gabiria



Familia ondareari segida eman nahian, Agurtzanek eta Aitorrek gurasoek urteetan baserrian egindako lanari jarraipena eman diote Legazpiko Makatza baserrian. Duela zazpi urte, Aitorrek industrian zuen lana uztea erabaki zuen baserriaren aldeko apostua egiteko. 2023an, Agurtzanek bere urratsak jarraitu zituen: lana utzi, Gomiztegiko Artzain Eskolan graduatu eta baserrira itzuli zen.

Jasangarritasun-printzipioak gidatuta eta zuzeneko salmentan eta kalitatezko produktuen ekoizpenean oinarrituta, familiako nekazaritza praktikatzen dute. Euren Idiazabal jatorri izendapena duen artzain gazta, ogia, magdalenak edota Errezil sagarraren gozoa dira horren isla.

-Info gehiago:

677711255

makatzabaserria@gmail.com

Facebook: Makatza_baserria

Instagram: @makatza_baserria

ERAKUNDE PUBLIKOAREN SARIA

BERGARAKO UDALA

Oxirondo azokan ELIKA ENEA sortzea



Bergara erdigunean dagoen Oxirondo azoka biziberritza du helburu egitasmo honek. Azokaren beheko solairuan, ohiko postuen alboan eremu zabal bat hartuko du. Bertan, besteak beste, sukalde komunitario bat eta denda bat egongo dira herriko eta inguruneko ekoizleen produktuak erosi ahal izateko.

Elikadura burujabetza eta bertako produktuak oinarri hartuta, "azoka garaikidearen" kontzeptuari heldu dio Erika Eneak, baserritarren produktuak lehen lerroan eskuragarri jarriz, ordutegi malguaz, kalitatezko eta konfiantzazko jakiak eskura ipiniz, sentsibilizazio jarduerak antolatuz, zein jantokien horniketa aukerak landuz.

-Info gehiago:

www.bergara.eus

943779100

Facebook: Bergarako Udala

X (Twitter): @BergarakoUdala

Instagram: @bergarako_udala

Youtube: Bergarako Udala

Flickr: Bergarako Udala

LANDA EREMUKO EMAKUMEAK / EMAKUME ELKARTEA SARIA

HITZETZ ELKARTEA



Hitzez elkarteak funtsezko garrantzia izan du landa-eremuko emakumeen ongizatean eta autonomian. 2007an Gipuzkoako Urola Kostako bost emakume baserritarrek sortua, elkarte aitzindari izan da emakume horiek beren bizipenak eta kezak adierazteko eta beren osasuna eta garapen pertsonala sustatzeko espazioak eskaintzen.

Emakume baserritarren arteko elkarrekintza sustatzea, gizarte- eta familia-errealitateari buruzko gogoeta egitea eta landa-eremuetan oreka biopsikosoziako eta generoko gaitan kontzientziaztea izan ditu zutabe urte guzti hauetan Hitzez-ek.

Info gehiago:
www.hitzez.net
623068983

hitzezhitzez@gmail.com

Facebook: Hitzez baserriko emakumeen elkarte

URTEETAKO IBILBIDEARI SARIA

ELI ARRILLAGA



Eli Arrillaga baserrian jaio ez bazen ere, artzain-lanetan aritu da 1980tik, gaztagintzan buru-belarri. Ardi latxen artaldea du eta eurek ekoiztutako gatzagi naturala baino ez darabil gazta egiteko. Elik Olaberrian igarotzen du negua bere artaldearekin; 1.200 metroko altueran, Urbiako Ttonttor bordan, aldiz, maiatzetik urrira. Dualtasun geografiko horri esker, bi gazta zapoetsu eta bereizgarri ekoizten ditu.

Olaberrian zein Urbian, Elik mendizaleak artatzen ditu gazta saltzeko, artzaien bizitza azaltzeko edo indarrak hartzeko

mokadutxoa eskaintzeko. Berrikuntzak barneratuz eta aurrera eginez, sindikatu eta hamaika erakunde elkarteetan parte hartzen eta hartu du, Ebel, Artzai Gazta, Larsabi... azpimarratzekoak ELE eta Goimeneko lehendakari izanak, bestetik, nekazina azaltzen da emakume artzaiari bisibilitatea ematen, ohiko lan eta ohituretan oinarritutako lana, mendien kudeaketetan duen garrantziaz besteak beste. Komunikazio eta sentsibilizazio dinamiketan duen parte-hartze aktiboari esker, artzantza kultura usadioak ondo baino hobeki gorde eta helarazten jarraitzen du Elik.

Info gehiago:
635747970
aizpeagazta@orange.es
arrillagaeli@gmail.com

SARIETARAKO HAUTAGAIK

Landaola Federazioa osatzen duten sei Landa Garapen Elkarteetako ordezkariak, Landaola Sarien VII. edizioko oinarriak, irizpideak eta saritutako proiektuak adostu dituzte. Sariak emateko garaian, honako alderdiak kontuan hartu dituzte: proiektuak eredugarri izateko dituen baldintzak, proiektuak eragiten dion landa eremuko biztanlego eta sortutako lanpostu kopurua, duen zabaltzeko aukera eta izan duen oihartzuna, edota eskualdeko landa garapen elkartearekin izandako lankidetzak.

Guztira 11 proiektu aurkeztu dira Landaola Sarietarako. Lehendabizi Landa Garapen Elkarteetako ordezkariak euren hautagaiak aurkeztu dituzte eta bigarren fase batean adostutako irizpideak jarraituz, irabazleak izendatu dituzte..

Ondorengo orrialdeetan jaso da izendatutako proiektuen inguruko informazio zabalagoa

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

BERTATIK.EUS

Bertatik - Gertuko elikagaiak, bertan sukaldatuak



Zabalduz kooperatibaren eta Fede Pacha & Coren arteko lankidetzeta proiektua da Bertatik. Bi enpresen esperientzia eta ezagutza uztartu ditu, sasoiko eta tokiko elikagai osasungarrietan oinarritutako egitasmo gastronomiko bat sortzeko. Gipuzkoako etxe, enpresa eta jantokietan bertako elikagaien kontsumoa bultzatzea du helburu, tokiko elikagai eta ekoizleekin elkarlanean, eskualdean elikadura sistema

jasangarri eta burujabea indartzeko. Gainera, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatu xede du proiektuak. Enplegu inklusiboaren bidez, egoera honetan aurkitzen diren pertsonak formatu eta sektoreko profesional bilakatzea bultzatuko du Bertatik-ek.

Info gehiago:
www.bertatik.eus
Aitor Zapirain 690019483

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

MARISOL JOSEFINA ABREU

Psikoterapia online, aurrez aurrekoa eta ahalduntze taldeak pertsona migratuentzat.



Marisol Josefina Abreuren proiektua landa-ingurunean garatutako ekimena da. Online psikoterapia nahiz aurrez aurreko zerbitzuak eskaintzen ditu, eta landa-ingurunea elementu terapeutiko gisa baliatzen du.

Saio presentzialak ingurune naturalean egiten ditu, hazkunde pertsonalerako giro egokia ahalbidetzen duelarik. Era berean, naturarekiko lotura sustatzen da prozesu


terapeutikoaren zati integral gisa, lotura horrek osasun mentalari eta emozionalari ekar diezazkiokeen onurak indartuz. Horrela, Marisol Josefina Abreuren egitasmoak laguntza psikologikoa emateaz gain, landa-komunitateetako bizitza biziberritzen eta sustatzen ere laguntzen du.

-Info gehiago:
www.biopsicoconexion.com
 601555935
biopsicoconexion@gamil.com
 Instagram: @biopsicoconexion

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

ITTURRUA GOIKOA

Itturrua Goikoa abeltzaintza



Elgoibarko fabrika batean, lanean ezagutu ziren Jol Igartua eta Andoni Barandika. Jol-ek fabrika utzi eta baserriko bizimoduaren alde egin zuen. Bi urte geroago, Andonik ere gauza bera egin eta 2023tik Eibarko Itturrua Goikoa baserria ustiatzen dute. Bertan, Aberdeen Angus arrazako behiak, moxalak eta euskal arrazako txerriak hazten dituzte, euskal orografia menditsuetara egokitutako ingurunean.

Aberdeen Angus arrazako txekorrak gizendu eta haragi pakete salmenta egiten dute eta Euskal arrazako txerrikumeak eta moxalak bizitarako saltzen dituzte.

Ekoizpen ekologikoa, jasangarritasuna eta kalitatea dute nortasun Jol eta Andonik.

-Info gehiago:
685784841
itturru@gmail.com

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

LOGIKALINE



logikaline

Logikaline, 20 urteko esperientziarekin, erreferente bilakatu da contact center eta bezeroaren arretarako zerbitzuetan eskaintzen duen bikaintasunagatik ez ezik inguruan duen eragin positiboagatik ere. Aralarko parke naturalean, Txindokiren magalean kokatuta, 24 orduko contact center plataformak eskaintzen dizkie industria, ecommerce eta zerbitzuetako

sektoreetako enpresei. Abaltzisketako herri lasaian, ehun langilek baino gehiagok osatzen dute Logikaline familia, eskualdeko garapen ekonomiko eta soziala bultzatuz. Logikaline enpresa dinamikoa da, eta bere langileen garapen profesionala sustatzen saiatzen da, jarrera, gardentasuna, balio-aniztasuna eta talde-lana bezalako balioetan oinarrituta.

-Info gehiago:
www.logikaline.com
info@logikaline.com
 943 110 022
 Facebook: Logikaline
 X (Twitter): @Logikaline
 Instagram: @logikaline
 Youtube: Logikaline

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

BIO-K; SAGAR ZIRKLE



Sagar Zirkle lurra eta ingurunea zainduko dituen eta sagarrak ematen duen guztia aprobetxatuko duen proiektu jasangarri bat sortzeko kezkarekin sortu da. Km0 eta hurbiltasunaren filosofia ardatz hartuta artisauki ekoizten dute Errezilgo instalakuntzetan. Produktu guztiak: sagardoa, ozpina eta txukruta ingurumenarekiko konpromezuaren baitan ekoizten dituzte eta zigilu ekologikoa dute. Edizio mugutuak

dituzte, ekoizpenak lehengaien ekoizpen-ahalmenera mugatzen dira. Behin produktuak osatua dituztenen, beira eta kartoizko kutxa birziklagarrietan ontziratzen dituzte.

-Info gehiago:
www.bio-k.eus
650160514
info@bio-k.eus
Instagram: @productos_bio_k

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

USURBILGO UDALA

Landa eremua ahaldunduz



“Landa ingurunea ahaldunduz” proiektuaren bitartez, Usurbilgo Udalaren helburu nagusia udalerrian lehen sektoreko jarduerak bultzatzea eta babestea da, baita landa ingurunearen erabilera egokia sustatzea ere. Nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen den biztanleriaren beherakadari aurre egin eta kanpoko produktuekiko eta ekoizleekiko mendekotasuna murriztea lortzeaz gain, elikadura-burujabea areagotzea da egitasmoaren xedea.

Horretarako, Usurbilgo Udalak hainbat bitarteko ezarri ditu. Hala nola, sektorea bultzateko proiektuen finantzaketa edota udal tasen hobariak onartzea.

-Info gehiago:

www.usurbil.eus

943371951

erregistroa@udala.eus

Facebook: Usurbilgo Udala

X (Twitter): @usurbiludala

Instagram: @usurbiludala

Youtube: Usurbil Udala

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

ZALDIBIKO UDALA

Kixkurgune agrodenda



Tokiko produktuak sustatu eta landa sektorea duindu asmoz, Zaldibiko Olaeta auzoan dagoen Kixkurgune denda/taberna eraberritu eta jatetxe bihurtu da egitasmo honi esker. Jatorrizko produktuari, bertakoari, izaera eta garrantzia emateko helburua du proiektuak, sektorearen lana eta ekoizpena balioan jarritz.

Aralar Parke Naturelean kokatuta, natura, nekazaritza eta gastronomia uztartu eta Goierriren nortasuna nabarmentzearekin batera, baserritarraren irudia sustatzen du Kixkurgunek, ondo egindako lanaren erakusgarri.

-Info gehiago:

www.zaldibia.eus

943880357

bulegoa@zaldibia.eus

Facebook: Zaldibiako Herri Ataria

X (Twitter): @zaldibiaeus

Instagram: @zaldibia

Youtube: Zaldibiako Udala

Flickr: Zaldibiako Herri Ataria

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

ALKIZAKO UDALA

Fagus Alkiza herri garapenerako proiektua



Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa Hernio-Gazume KBEaren erakusleho izateaz gain, herritarren, baserritarren, naturazaleen, artisten eta mendizaleen hausnarketarako eta topaketarako gune ere bada. Urtean zehar zentroak hainbat jarduera antolatzen ditu, hala nola hitzaldiak, mendi-irteerak eta tailerrak.

Natura, gizakia eta kultura ardatz dituela, zentroaren helburua da biodibertsitatea kontserbatzea eta garapen iraunkorra

sustatzea, baserritarrek ingurunea babesteko duten garrantzia azpimarratuz. Gainera, alkizarrek beren historian zehar ingurunearekin izandako harremana ezagutarazi nahi da eta, horretarako, bildutako kultur-ondasunak ikusgai egongo dira: txondorra, karobiak...

-Info gehiago:
www.alkiza.eus
 943690235
udala@alkiza.eus
 Facebook: Alkizako Udala
 X (Twitter): @AlkizaK
 Instagram: @alkizakultura
 Youtube: alkiza udala

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

BEIZAMAKO UDALA

Ostatuko denda



Beizamako Udalaren proiektuaren helburua herriko biztanleen eguneroko beharrak aseko dituen saltoki txiki bat irekitzea da, herrian dagoen taberna bakarrean. Egitasmoa partaidetza-ereduan oinarritzen da, eta herritarrak inplikatzeko herriaren estrategiaren lanketan, ahalik eta pertsona gehienek parte har dezaten.

Herritarren beharrak asetzeaz gain, Beizama bisitatzen duten pertsonen bertako ekoizleen produktuak eskaini, herriko produktuak ezagutaraztea. Herriko ostatuak zerbitzu bat gehiago eskaintzea.

Info gehiago:
www.beizama.eus
 943816338
udala@beizama.eus

DOKUMENTAZIOA ETA WEBORRIAK



LANDA GARAPEN ELKARTEEN WEBORRIAK:

www.landaola.eus

www.behemendi.eus

www.debagaraia.eus

www.debemen.eus

www.goimen.org

www.tolomendi.eus

www.urkome.eus